

Egitaraua

AULESTI

Martxoak 8, martitzena.

-19:45ean, udaletxean osoko bilkura berezia egingo da, Martxoaren 8ko adierazpena onartzeko.
-20:00etan, elkarretaratzea.

Martxoak 11, barikua. 20:15ean, pintxo-poteoa K-Tum-K batukadagaz.

Martxoak 13, domeka.

12:00etan, Toti Martinez de Lezearen eskutik, *Gure emakumeen historia* berbaldia.

BERRIATUA

Martxoak 8, martitzena.

-18:30ean, elkarretaratzea.
- Ondoren, montxor feminista.

Martxoak 11, barikua.

17:00etan, udal liburutegian, haurrentzako ipuin kontalaria: *Roljokoa*.

Martxoak 13, domeka.

17:00etan, Tribial feminista herriko plazan.

Martxoak 18, barikua.

20:00etan, antzerkia: *Errautsetatik erne*.

ETXEBARRIA

Martxoak 5. 21:30ean, *Adarretatik zintzilik* antzerkia, kultur aretoan.

GIZABURUAGA

Martxoak 8, martitzena.

-19:00etan, Beldur barik lehiaketako film laburren proiektzioa, txokoan.

- Ondoren, kopaua.

- Azkenik, Gizaburuagako emakumeen argazki erakusketa eta opari banaketa.

ISPASTER

Martxoak 6. Emakumearen pilotu eguna, 11:00etatik aurrera. Lehendabizi, palazko partidak jokatu dituzte Larrabetzu, Bakio, Lea Ibarra, Elorrio, Mallabia eta Areatzako pilotariek. Azkenik, lehen mailako partida jokatu dute: Pradera eta Etxani-

zek, Arrizabalaga eta Villanuevaren aurka jokatu dute.

Martxoak 8, martitzena.

-18:00etan, *Amama* filmaren proiektzioa, Iñigo Egiluz aretoan.
- Ondoren, kopaua.

LEKEITIO

Gaur. Lekeitioko neska gazteen eskutik, 20:00etan, *Emakumea eta lana* bideo emanaldia eta eztabaida, Galarrenan.

Martxoak 5, 6 eta 7. *Sufragistak* filma, Ikusgarri aretoan. Orduategia: zapatuan eta domekan, 19:30ean, eta astelehenean, 20:30ean.

Martxoak 5.

-10:00etatik 13:00etara, *Ekonomia feminista* ekonomia sentitzeko tailerra, Baradiaran aretoan.

-20:00etan, *Kartoizko banda* poeteo animatua, Mantxuatik.

-22:00etan, Mantxuan, emakueen afaria.

-00:30etik aurrera, Jai feminista, eta, ondoren, Perpetua Rebollo DJ.

Martxoak 8, martitzena.

19:30ean, brindisa Limonerutan.

MARKINA-XEMEIN

Martxoaren 13ra arte. Markina-Xemeingo hainbat emakume sortzaileren erakusketa Markina-Xemeingo erakuslehoetan.

Martxoak 4.

-18:00etan, *Gure harreman eta jarrerak aztertzen* tailerra, Akerbeltz gaztetxean.

-20:00etan, *Emakumeak gatazka guneetan* hitzaldia, Uhagonen. Hizlaria: Rosabel Agirregomezkorta, markina-xemeindarra, Politika Zientzietan eta Soziologian lizentziatua.

Martxoak 11, barikua. 20:30ean, Emarock erakusketa eta bideo proiektzioa, Uhagonen. Dokumentalagaz batera, kontzertu laburra eta erakusketaren inaugurazioa egingo da, luntx bategaz.

Martxoak 12, zapatua.

-12:00etan, batukada herrian zehar.

-21:00etan, emakumeen afaria.

MENDEXA

Martxoak 12, zapatua. Kuku-habixak antolatuta, Emakumeen Nazioarteko Eguneko egun-pasa egingo dute La Guardiara (Errioxa). Autobusak 08:00etan irtengo du. Izen ematea martxoaren 10a aurretik egin beharko da udaletxera deituta (94-684 21 06) edo Kuku Habixa elkarteo Gotzonegaz edo Marijegaz harremanetan jarrita.

MORGA

Bihar. Morgako pilotalekuaren inaugurazioa aprobetxatuta, emakumeen eskuz binakako pilota partidak jokatu dituzte, 17:30ean hasita. Arrate Gaztelu -Ainhoa Alaiogoikoa (Larrabetzu) / Irati Etxebarria -Ane Baraiazarra (Larrabetzu).

MUNITIBAR

Martxoak 8, martitzena.

18:30ean, *La bicicleta verde* filmaren proiektzioa, bideo aretoan.

Martxoak 11, barikua.

-19:30ean, elkarretaratzea, plazan.
-Ostean, *Prest gaude!* antzerkia.

MUTRIKU

Bihar. *Hau ez da gure bakea* ekitaldi nagusia, 12:30ean, Goiko plazatik hasita.

Martxoak 6, domeka.

-18:00etan, Amaia Arriaranen eskutik, *Laburtu marra hau!* umeentzako antzerkia, Zabielen.

Martxoak 8, martitzena. Elkarretaratzea, 19:00etan, Goiko Plazan.

Martxoak 11, barikua.

22:00etan, *Mantazpitik* poesia musikatua, Gaztetxean.

Martxoak 13, domeka. Baduten eskutik, *Berdintasuna ez da ipuin bat* antzerkia, Zabel kultur etxean, 19:00etan.

Martxoak 17, eguena. 19:00etan, *Komunikabideak eta feminismoa* hitzaldia eskainiko du Malen Aldalurrek, Emagunean.

Martxoak 18, barikua. 22:30ean, kontzertuak, Gaztetxean: Anari

eta Mara-mara.

Martxoak 24, eguena. *La voz dormida* filmaren proiektzioa, 22:00etan, Zabielen.

ONDARROA

Martxoaren 15era arte. *Emakume asmatzaileak* erakusketa, Etxelilan. Orduategia: martitzenetik eguenera, 16:30etik 20:30era

Martxoak 8, martitzena.

19:00etan, Alamedan, elkarretaratzea, lore banaketa eta gehiago...

Martxoak 9, eguaztena.

18:00etan, Etxelilan, *Emakume errefuxiatuak: indarkeriarik beteriko bide luzea* hitzaldia. Hizlariak: Trinidad Vicente (Giza eskubideen Institutua -Deustuko Unibertsitatea) eta Maryam Fathi (Kurdistango errefuxiatu politikoa).

Martxoak 10, eguena.

19:00etan, Bide Onera zineman, *Sufragistak* filma, doan.

Martxoak 11, barikua.

18:00etan, Etxelilan, *Hotzikara ipuin erotikoak* helduentzako ipuin musikatua. Ahotsa: Ines Bengoa. Musika: Iosu Lizarraga.

Martxoak 12, zapatua.

-20:00etan, Kofradia Zaharretik hasita, *Bertsokalejira feminista*. Bertsolariak: Onintza Enbeita eta Nerea Elustondo. Antolatzailerak: Andrabanda feminista.
-21:00etan, luntxa eta dantzaldia, Antiguako Ama egoitzan.

Martxoak 22, martitzena. Uxu Emakumeen Taldeak antolatuta, 19:00etan, *Memorias de mujeres educadas en prision: el silencio sobre la carcel de Saturraran* hitzaldia, Etxelilan. Hizlariak: Julia Monge Sarabia (Intxorta 37 Kultur Elkartea), Izaskun Orbeagoz Oronoz (kriminologoa).

ZIORTZA-BOLIBAR

Martxoak 5.

-12:00etan, udaletxeko batzar aretoan, *Euskal Herrian kultura matrilineala* hitzaldia, Mari Karmen Basterretxea antropologoaren eskutik.

-14:30ean, bazkaria, Kanpapur.